

MENDEBALDEAREN HEGEMONIA EKONOMIKOA GEROZ ETA AHULAGO DUGU BRICS+ TALDEAREN ERAGINEZ

BRICS+ taldearen gailurra iragan berri da Errusiako Kazan herrian. Errusia, Txina, India, Iran, Brasil, Hego Afrika, Egipto, Emirerri Batuak eta Etiopia batzen ditu estatu-bloke horrek, eta beste 30 bat estatuk dute bertaratzeko hautagaitza aurkezturik. Ekonomikoki pisu handia du, eta politikoki ere badu indarra Errusia, Txina eta Iran barne dituen egitura horrek. Segur aski horregatik dute Mendebaldeko komunikabideek isilean atxiki gailurrean errandakoa eta erabakitakoa. Hurbilgotik begiratu nahi izan diogu guk.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Dantza bideratu dute Errusiak eta Txinak: "Mundu berri bat azalera-tzen ari da gure begien aitzinean. (...) Mundu multipolar bat eratzeko prozesua abian da", Vladimir Putinen hitzetan; "duela mende batetik hona sekula ikusi ez diren aldaketa sakonei egin behar die aurre munduak. Garatzen ari diren merkatu berrien eta garapen bidean diren herrien arteko elkartasunerako eta lankidetzarako plataformatik garrantzitsuena da BRICS+", gehitzen dio Txinako presidentea Xi Jinpingek. Urriaren 22tik 24ra Errusian iragandako BRICS+ taldearen hamaseigarren gailurreko diskurtso ofizialeko pasarteak dira.

Mendebaldeko ala besteko, erabat desberdinki estalitako nazioarteko hitzordua izan da Kazan herrian egindako gailur-arena. Aipamen guti ala gutietsigarria Mendebaldean, eta hitzorduaren pisu politikoaren goraiapmena BRICS+ taldeko herrietan eta oro har, garapen bidean diren herrialdeetan. Brasil, Errusia, India, Txina, Hego Afrika, Egipto, Iran, Emirerri Batuak eta Etiopiaren artean osatutako BRICS+ blokeak duen potentzial politikoa eta ekonomikoaren goraiapmena azken horientzat eta bloke horren baitan den aniztasunaren -eta beraz kohesio-ezaren- azpimarratzea Europaren, AEBen eta Japoniaren partetik.

Partaide guziak ez badira hain erradikalak ere, "Mendebaldearen hegemoniarekin" bukatzeko helburua plazaratu zuen beste behin Errusiak -Txinak eta Iranek

sustengaturiko postura-. Nonbait, horretarako sortu zen 2009an, "errealitate geopolitiko berri bat" gorpuzteko, eta hamabost urteren buruan ideiak argi segitzen du. Ideiak argi eta anitzez indartsuago.

Hitzordu inportantea izan da Putinentzat, 2022ko otsailaz geroztik Mendebaldeko blokeak bakartu eta ahuldu nahi izan duen Errusiarentzat. Mendebaldearen parean kontra-pisua egiteko helburuz dabilen talde horren gailurra berean bideratu izana bada jadanik mezu potentia -aitzineko urtean Hego Afrikan zuten hitzordua, baina bere kontra dagoen atxilotze aginduagatik, etxean gelditu eta bi-deokonferentziaz segitu behar izan zuen Putinek-. Antolatuta eta 30 bat estatu ordezkariaren artean agertu izanak badu pisu politiko handia. Nahi edo ez, ondokoa izan da Errusiak munduari zabalduriko mezua: "Ez naiz zuek nahiko zenuketen bezain bakarrik". NBEko idazkari nagusi António Guterres eta Putinen artean egindako bilerak ere balio izan dio horretarako, Ukrainako gerla hasiz geroztik onarturiko lehen buruz burukoa izan dutelako.

Sortzerakoan, 2009an BRIC akronimoa jarri zioten, Brasil, Errusia, India eta Txina estatu-kideei erreferentzia eginda; BRICS bihurtu zen 2011n Hegoafrika (South Africa) sartu zenean, eta + horrek barnebiltzen ditu aurten sarturikoak: Egipto, Iran, Etiopia eta Emirerri Batuak -Saudi Arabia hor dabil, erdi-sarturik, baina AEBen presioaren menpe, osoki sartzeko ausardia eskasian-. Indarra hartzen doan

nazioarteko egitura da BRICS+ eta haien hautagaitza aurkeztu duten 34 estatu berrien zerrenda dugu frogara. Berez BRIC akronimoa lehenagotik hor zen. 2001ean zuen Jim O'Neill ekonomialariak erabili, hain justu Mendebalde boteretsuaren ondoan lau herri horiek harturiko pisu ekonomikoa azpimarratzeko. Goldman Sachs inbertsio-bankuarentzat idatzirikoa txoste batean agertzen zen akronimoa eta ukan zuen eragina: konfiantza egin eta inbertitzaile anitz ziren lau herri horietan kokatu. Gaur egun, munduko BPGaren %30 eta biztanleriaren %46 ordezkatzeko du BRICS+ek.

SAIHESTEZINA, ARE GEHIAGO KAPITASLIMO BERDEAN

Klima larrialdiaren testuinguruan kapitalismo berdearen estrategia finantzario ekonomikoak are pisu gehiago hartzen duen honetan BRICS+ taldea boteretsuagoa bihurtzen da -eta kezkarriagoa Mendebaldearentzat-. Hain zuzen, energia berriztagarrietzat, auto elektrikoentzat zein ekonomia numerikoarentzat ezinbestekoak diren mineral eta metalei dagokionez sekulako erreserbak dituztelako. Pentsa, mundu mailako platino erreserben %97, zinkaren %72, lur arraroen %72... Zer erraz ez kandidatura aurkezturik duten Indonesia, Nigeria, Kazakhstan eta Bolivia bezalako estatuak sartzen badira taldeak. Petrolio eta gas ustiapenarekin segitzen dugun bitartean, badituzte hor



ERRUSIA INGURATURIK Mendebaldeak baztertuta eta bakarrik nahiko luke ikusi Errusia, baina Kazaneko gailurrean bestelako argazkia utzi dio Vladimir Putinek munduari: 30 bat estatu ordezkari izan ditu ondoan, baita NBEko idazkari nagusia António Guterres ere. Txina ere ukan du ondoan, aliatu handi gisa.

ekoizle eta esportatzaile nagusienak. "Ekoizpena garatuta eta aukerak biderkatuta, BRICS+eko herri guzietan dute haien metal kritikoen hornikuntza ziurtatzeko eta ekoizle izaera sendotzeko nahia. Lehengai estrategiko horiei dagokionez, kideen arteko aldebiko harremanen aukera ematen die BRICS+ak, hori nazioarteko komertzio bide tradizionaletatik pasa gabe", irakurri daitezke IRIS zentroaren *Les BRICS+: vers une domination sans limites sur les marchés des matières premières?* (BRICS+: lehenengaien merkatuaren mugagabeko dominazio bateruntz?) erreportajearen. Gainera, duten aberastasunaz eta beraz botereaz jakitun, kanpoari begira murrizketa politika bateratuak ere garatzen dituzte –direla debekuak eta zergapetzeak–, eta horrek "Europaren, AEBen eta Japoniaren erresilientzia

energetikorako eta teknologikorako ezinbestekoak diren metal estrategikoen hornidura-segurtasuna zalantzan jarri dezake", IRIS zentroaren ustez.

DOLARRAREN DEPENDENTZIATIK ATERA

Mendebaldeak kontrolatzen eta bideratzen duen nazioarteko sistema monetarioa eta dolarraren dependentsia ahultzea dituzte helburu nagusien artean, eta urratsez urrats horren alde egin nahian dabilta. Adibidez, nazioarteko ordainketak egiteko baliatzen den Swift sistemaren alternatiba litzatekeen sozietate bat osatzeko ideia garatu zuten Kazanen, eta BRICS+ena litzatekeen monetaren ideiarekin aitzina doazela frogatzeko billete bat aurkeztu zien bertakoei zein kazetariari Putinek. Europak eta AEBek inposaturiko zigorrak saihesteko aukera lukete

hor, demagun, Errusiak, Txinak eta Iranek.

Hor dute ere duela hamar urte iragandako seigarren gailurrean sortu zuten Garapenerako Banku Berria. Mendebaldearen esku diren Nazioarteko Diru Funtzen eta akordio neoliberalen kalteei aurre egin ezinik –dependentsia, kanpo zorrak, austeritate inposaketak, Errusiarekin trataturik ez egiteko manuak ala beste– interes handia pizten die sistema alternatibo horrek Afrikako, Hego Amerikako, Asiako baita Europako estatu anitzetxei ere. Zentzu berera doa gailurrean aipaturiko zerealen burtsa propioa sortzearen proposamena. Hori ere begi onez hartua izan dena. Hots, Mendebaldearen hegemonia ahulduko luketen tresna eta ideia andana entzun da Kazanen, eta Mendebaldeko komunikabideen isiltasunak anitz salatu digu. Bai, bada hurbiletik segitu beharrekoa BRICS+ taldea. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com

 





VUARNET